



2017-2018ko IKASTURTERAKO NORBANAKO CURRÍCULUM EGOKITZAPENAK TRAMITATZEKO BERRIZTATZEKO ZUZENDARIAK ETA IKUSKARI NAGUSIAK BATERA EMANDAKO ARGIBIDEAK

EAEko hezkuntza- eta pedagogia-ereduaren markoan jasota agertzen da pertsona guztiek hezkuntzarako eskubidea izango dutela bermatzeko premia, zuzentasun eta justizia sozialaren klabeetan egindako planteamendu etiko batetik abiatuta. Hezkuntzak aukera-berdintasuna, inolako diskriminaziorik égin gabe, eman behar du, baita desberdintasun ekonomiko, sozial, kultural eta pertsonalak orekatzeko funtzioa bete ere. Planteamendu horrek Administrazioak, hezkuntza-arduradunek, profesionalak eta hezkuntza-erkidegoko kide guztiek inklusioaren printzipioaren arabera jokatzeari dakar; horiek horrela, hezkuntza konprentsibo eta pertsonalizatu bat sustatuko dute, derrigorrezko oinarrizko hezkuntzak bukatu arte.

Aplikatzeko moduko legeriaren arabera, hezkuntza-premia berezietarako aholkularitzek dute hezkuntza-premia berezietako ikasleen diagnostiko pedagogikoa, eskolatzeko proposamena eta jarraipena egitearen ardura, baita ikasle horientzat aparteko baliabideak egoteko proposamena egitearena ere; halaber, Hezkuntza Ikuskaritzak du prozeduraren legezko alderdiak konprobatzearen ardura, oniritzia emateko edo, behar izanez gero, aldatu beharko lirartekeen alderdiak adierazteko.

Tramitazioa arautzea eta irakasle-taldeek proposatutako norbanako curriculum-egokitzapenak legeriaren arabera izango direla ziurtatzea dituzte argibide hauek helburu; halaber, hezkuntza-premia berezietarako aholkularitzentzat eta Hezkuntza Ikuskaritzarentzat izango dira erreferentzia, eskuduntzen legezko esparruan, curriculum ofizialaren egokitzapen esanguratsua eskatzen duten ikasle horien premiei ahalik eta erantzun egokiena emango zaiela bermatzeko asmoz.

1.- OHAR OROKORRAK.

Horrela definitzen da norbanako curriculum-egokitzapen esanguratsua: curriculumaren aginduzko elementuak funtsean aldatzea dakarren aparteko neurria. Horri dagokionez, 1998ko uztailaren 24ko aginduak (abuztuaren 31ko EHAA) 8.2. artikuluan xedatzen duenez, *"zikloko curriculum eta arlo edo irakasgaiaren programazioa egokitzeko ohiko neurri guztiak, hezkuntza-errefortzua, kurtso edo ziklo batean urtebete gehiago ematea ... nahiko ez badira aplikatuko da norbanako curriculum-egokitzapen esanguratsua; bestela, ez"*.

Bestalde, abenduaren 22ko 236/2015 dekretuak, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum finkatu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak, 51. artikuluan adierazten duenez, *"errepikatzea aparteko neurritzat joko da eta, ikasteko ikaslearen zailtasunak gainditzeko, gainontzeko ohiko errefortzu- eta laguntza-neurriak baliagarri ez direnean erabiliko da"*.

Horregatik, oro har, aparteko ohiko neurritzat jo behar da errepikatzea eta, norbanako curriculum-egokitzapena proposatu aurretik, hartu behar da kontuan.

Edonola ere, ikasle bakoitzaren premiak baloratu behar dira eta ohiko neurri guztiei eman behar zaie lehentasuna, NCEren (ACI) proposamena egin aurretik. Horregatik, ohiko neurriak, errepikatzea barne, agortu gabe ikasle batentzat lehen aldiz curriculum-



egokitzapen esanguratsu bat proposatzen bada, proposamen hori behar bezala arazoitu beharko da.

Hezkuntza sailburuordeak derrigorrezko eta derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzan curriculum-egokitzapenei eta salbuespenei buruz 2012ko irailaren 10ean eman zituen argibideak irakurtzea gomendatzen dugu, curriculum-egokitzapenen eskaerak ikuskatu eta tramitatzeko prozesuari hasiera eman aurretik.

1.1.- NCE globala

1998ko uztailaren 24ko aginduaren (abuztuaren 31ko EHAA) 9. artikuluan horrela definitzen dira norbanako curriculum-egokitzapen esanguratsuak: curriculum-arlo desberdinetan oinarritzat eta funtsezkatat jotzen diren helburu orokorrak eta edukiak ezabatzen diren horiek; horren ondorioz, helburu orokorrak eta etaparen ebaluazio-irizpideak nabarmen aldatuko dira.

Elbarritasun intelektualari, garapenaren nahasmendu orokortuari eta elbarritasun anitzari lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat bideratuta dago NCE globala, ikasle horiek curriculum-alde nabarmena badute berorien curriculum-gaitasunaren mailaren eta eskolatuta dauden kurtsoaren mailaren artean. Alde horrek era orokortuan eragiten die curriculum-arlo guztiei edo gehienei eta, horregatik, arrazoizkoa da zailtasun inportanteak aurreikustea, helburu orokorrak lortzeko eta ikasleak eskolatuta dauden etaparen oinarritzko gaitasunak behar bezala garatzeko orduan.

Helburu orokorrak lortzeko zailtasun inportanteak aurreikusten diren arlo edo irakasgaiak aldi berean hizkuntz esparruko eta esparru zientifiko eta matematikoaren esparruko oinarritzko gaitasunei eragiten badiete, eragite hori curriculum-eremu guztietara edo gehienetara zabaltzen dela interpretatu behar dugu.

Arau orokor gisa, NCE bat Lehen Hezkuntzan proposatzeko, bi kurtsokoa, gutxienez, izan behar du ikaslea eskolatuta dagoen kurtsoaren curriculum-mailaren eta ikasle horren egiazko curriculum-egoeraren arteko aldeak. DBHn, NCEren proposamenak Lehen Hezkuntzako etapa izango du derrigorrean erreferentzia eta, edonola ere, bi kurtsoko, gutxienez, curriculum-alde bat izan behar da.

1.2.- Arlo mailako NCE

Beste batzuetan, egoerak curriculum-eremuren bati edo batzuei besterik ez die eragiten eta ikasleek dute beste curriculum-eremu batzuei lotutako arlo edo irakasgaien helburu orokorrak lortzeko aukera.

Hau da elbarritasuna hizkuntz esparruan (gorreria, dislexia, ...) duten ikasleen kasua. Elbarritasun horrek era nabarmenean izan dezake eragina curriculumaren hiru hizkuntz arlo- edo irakasgaietan eskolatutako mailaren helburuak lortzeko orduan. Hala ere, elbarritasun egoerak honek zuzenean eragiten ez dien beste curriculum-esparru batzuei dagokienez, mailaren helburuak lor daitezke arlo edo irakasgai horietan eta, beraz, irekita geratzen da ikasleak etaparen helburu orokorrak lortzeko aukera.

1998ko uztailaren 24ko aginduaren 9. artikuluan horrela definitzen dira arlo mailako norbanako curriculum-egokitzapen esanguratsuak: arlo konkretuaren batean edo batzuetan helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak aldatu edo ordezkatzeko diren



arren, etaparen helburuak ez dira aldatzen eta ikasleek, etaparen bukaeran, behar den titulazioa izatea lortu nahi da.

Ondorengo arloei lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat proposatu ahal izango dira arlo edo irakasgai mailako NCEak:

- Ikusteko ezgaitasuna.
- Entzuteko ezgaitasuna.
- Mugitzeko ezgaitasuna.
- Ondorengo puntuei buruzko ikasteko zailtasun espezifikoak:
 - Irakurtzen eta idazten ikastea.
 - Kalkulua ikastea.
 - Hizkuntzaren nahasmendu espezifikoak.
 - Arreta-defizitaren, hiperaktibitatearekin edo hiperaktibitate gabe, nahasmendua.

Ikasteko zailtasun espezifikoak horrela definitzen ditugu: *“irakurtzen, idazten edo kalkulua ikasteko zailtasun espezifikoak, hizkuntzaren nahasmendu espezifiko bati lotutako ikasteko zailtasun espezifikoak edo arreta-defizitaren, hiperaktibitatearekin edo hiperaktibitate gabe, nahasmendua”*.

Mugako koefiziente intelektualaren diagnostikoa egin zaien ikasleen kasuan, aparteko kasuetan besterik ez da arlo edo irakasgai mailako NCE bat proposatutako eta, horren premia dagoela behar bezala motibatuzko, testuinguruaren arabera balorazio psikopedagogikoa egin beharko dute hezkuntza-premia berezietako aholkularitzek.

Edonola ere, ikasteko zailtasun espezifikoak eta mugako koefiziente intelektualaren egoeretan, betiere hezkuntza-errefortzuko planak egiteko prozesuari eman beharko zaio lehentasuna.

Aparteko kasuetan, Asperger duten ikasleak esate baterako, eta hezkuntza-premia berezietako aholkularitzek behar bezala motibatu badituzte, arlo mailako NCEren bat proposatu ahal izango da, betiere NCE mota horiek definitzen dituzten baldintzak betetzen badira.

Edonola ere, arlo mailako NCE proposatzeak bi urteko, gutxienez, curriculum-aldea ere exijitzen duela adierazi behar dugu.

1.3.- NCE globala vs arlo mailako NCE

Batzuetan ez dira irizpideak argi izan NEC globala edo arlo mailakoa planteatu behar zen zehazteko orduan.

Arlo edo irakasgaien kopuru konkretu bat baino garrantzitsuagoa da arlo eta irakasgai horiek ikasleen oinarrizko gaitasunak garatzeko prozesuan eta etaparen helburu orokorrak lortzeko duten eragina kontuan hartzea. Horiek horrela, curriculum-egokitzapen esanguratsuaren proposamena aldi berean Hizkuntza eta Matematikak arloetan egiten bada, egoera horrek etaparen helburu orokor esanguratsuei eragiteko aukera hartu behar da kontuan eta, beraz, aukera egokiena NCE globala proposatzea litzateke.



Arau orokor gisa, eta hizkuntzetako arlo /irakasgaien kasurako azaldutako salbuespenarekin, NCE globalaren proposamen batean gertatzen da, normalean, 3 arlo /irakasgai edo gehiago egokitzeko proposamena.

Hala ere, eta lehenago ere adierazi dugunez, hiru hizkuntz arlo edo irakasgaiak baldin badira edo arlo zientifikoa eta matematikoa besterik ez bada, baina ikasleak beste arlo edo irakasgai batzuen curriculum-exijentziak bete baditzake, egokiagoa izango da arlo mailako NCEren proposamena egitea.

1.4.- Iraupena, ebaluazio-irizpideak, beste kurtso batera pasatzea, kalifikazioa, titulazioa eta erregistroa NCEen ebaluazio-aktetan.

NCE batek ikasturte 1, 2 edo 3 iraungo du Lehen Hezkuntzan, ikastetxeak antolatzeko formula desberdinen arabera. DBHn iraupena ikasturte batekoa izango da. Edonola ere, NCEk zenbat irauten duen alde batera utzita, kurtso bakoitzerako ebaluazio-irizpideek jasota agertu beharko dute.

Ikaslea DBHko 4.ean eskolatuta badago eta irakasgairen batean arlo mailako NCE badu, NCE gainditzeak etaparen gutxienezko helburuak lortzea dakarren edo ez azaldu beharko da ebaluazio-irizpideetan.

Kurtsoa errepikatu behar izanez gero, beste NCE bat tramitatuko da eta ikasturte batean iraungo du.

Beste kurtso batera pasatzeko irizpideak:

Ikasle batek NCE global bat baimenduta duen kasuetan, irakasle-taldeak ikasle hori hurrengo kurtsoa pasako den edo ez erabakiko du, kurtsoa errepikatzeko neurria erabili den edo ez eta neurri hori ikaslearen premietara egokitzen den kontuan hartuta.

Ikasle batek NCE bat edo batzuk baimenduta dituen kasuetan, NCE horiek gainditu badira, gainontzeko arlo edo irakasgaiak bakarrik hartuko dira kontuan, ikasleak hurrengo kurtsoa pasa behar duen erabakitzeke orduan.

Hots, NCEren bidez gainditutako arlo edo irakasgaiak gainditutzat joko dira hurrengo kurtsoa pasatzearen ondorioetarako, baina ez titulazioaren ondorioetarako.

Titulazioa DBHn.

NCE global bat baimenduta duen ikasleak ezin izango du Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua lortu.

NCEak arlo batean edo gehiagotan baimenduta dituzten ikasleen kasuetan, NCEak gaindituta izan arren, arlo horiek gainditu gabekotzat jo beharko dira titulazioaren ondorioetarako, ikasleak ez baititu DBHko 4.eko gaitasunak lortu arlo horietan.

Dena den, ikasle horiek Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua lortu ahal izango dute, curriculum-egokitzearen esanguratsua duten arloen helburu orokorrak lortu ez arren ikasleak, irakasle-taldearen iritziz, etaparen gutxienezko helburuak eta 236/2015 dekretuan zehazten den irtera profilarren oinarritzko gaitasunen garapen maila lortu baditu.



lido horretan, 98ko aginduak 9. artikularen 2. puntuan adierazten duena hartu behar dugu kontuan:

"Arlo mailako norbanako curriculum-egokitzapen esanguratsuak horrela definitzen dira: helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak arlo batean edo gehiagotan aldatu edo ordezkatzan diren arren, etaparen helburu berberak jarraitzen dute indarrean eta ikasleek, etaparen bukaeran, behar den titulazioa lortzea nahi da".

Dokumentazio akademikoa betetzea:

Lehen Hezkuntzan "NCE" esaera sartuko da ebaluazio-aktan, norbanako curriculum-egokitzapen bat baimenduta duten ikasleen kalifikazioaren ondoan. Kalifikazioa aurrera eramandako lan-planari eta ikasleak lortutako aurrerapenari buruzkoa izango da. Zirkunstantzia hori, behar den eginbidearen bidez, espediente akademikoan erregistratuko da.

NCE baimendua izan ez den eta ikaslearekin laguntza-jarduera espezifikoak gauzatu diren kasuan, "errefortzua" terminoa adieraziko da kalifikazioarekin batera. Kasu horretan, ikaslea eskolatuta dagoen curriculum-erreferentziako mailari buruzkoa izango da kalifikazioa.

Ebaluazioaren laukia ez da inoiz ere bete gabe geratuko.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasle batek norbanako curriculum-egokitzapen bat baimenduta duen kasuetan, "NCE" adieraziko da kalifikazio kuantitatiborako laukian eta "oharrak eta hutsegiteak" aplikazioaren bidez izartxo (*) bihurtuko da.

NCE baimendua izan ez den eta ikaslearekin laguntza-jarduera espezifikoak gauzatu diren kasuan, "errefortzua" terminoa adieraziko da kalifikazioarekin batera. Kasu horretan ikaslea eskolatuta dagoen curriculum-erreferentziako mailari buruzkoa izango da kalifikazioa.

Ebaluazioaren laukia ez da inoiz ere bete gabe geratuko.

NCE, gainera, espediente akademikoan, behar den eginbidearen bidez, erregistratuko da.

Aktetan ez dira aniztasunari arreta emateko beste neurri batzuk, hezkuntza-errefortzuak, PREE edo PCE programak esate baterako, agertuko; eginbide gisa gehituko dira espediente akademikoan.

NCEekin gaindituta dauden arlo edo irakasgaiak ez dira akta osagarrietan sartuko, haien curriculum-erreferentzia aurreko ikasturteetakoak izan arren; izan ere, eta lehenago adierazi dugunez, gainditutzat jotzen dira hurrengo kurtsora pasatzearen ondorioetarako.

NCE kendu zaion ikasle baten espedientearen egoera.

NCE duen ikasle batek curriculum-egokitzapen esanguratsua behar ez izateko moduan aurrera egin duela uste den kasuetan, ikasle arruntentzat erabiltzen diren irizpide berberak erabiliko dira haien espediente akademikoa betetzeko orduan; hots, eskolatuta dagoen curriculum-mailaren arabera kalifikatuko dira arlo edo irakasgaiak.



Arlo edo irakasgairen bat gainditu gabe geratzen bada, akta osagarrietan edo gainditu gabeko mailako gainditu gabeko irakasgaien arloan sartuko da hurrengo ikasturtean.

Ikasleak egin duen programari lotutako helburuak lortu ez dituen irakasgaia joko da gainditu gabekotzat.

2.- EGUTEGIA ETA TRAMITATZEKO PROZESUA:

2.1. ALDERDI OROKORRAK

1.- W67 aplikazioaren bidez tramitatzen dira curriculum-egokitzapenak, abenduaren 22ko 236/2015 dekretuak (urtarrilaren 15eko EHAA) 37.5. artikuluan eta 1998ko uztailaren 24ko aginduak (1998ko abuztuaren 31ko EHAA) xedatutakoaren arabera.

2. NCE, eta ez hezkuntza-errefortzua, duen ikasle bat dela egiaztatu behar da. Hezkuntza-errefortzukoentzat HIBP (Hezkuntza-indartzeko banakako plana) bat egingo da.

3. Ikasle berberari ezin izango zaizkio aldi berean bi neurri aplikatu (NCE eta salbuespena, NCE eta HIBP arlo edo irakasgai berean ...).

4. NCE globala duten ikasleen kasuetan, NCE duten arlo edo irakasgaiak ez dira akta osagarrietan edo gainditu gabekoen aktetan sartuko. Arlo mailako NCE duten ikasleen kasuetan, gainditu ezean, NCEren erreferentzia-kurtsoko akta osagarrian idatziko da.

5. NCEak, oro har, W67 aplikazioaren bidez tramitatuko diren arren, hau ez da curriculumera sartzekoei aplikatuko; dena den, horiek idatziz jasota agertu behar dute ikastetxeetan beraietan.

6. Irailaren 29a baino lehenago sartu behar dituzte NCEak aplikazioan ikastetxeek. Hezkuntza-premia berezietako aholkularitzek urriaren 20a baino lehenago emango dute txostena eta Hezkuntza Ikuskaritzak azaroaren 10a baino lehenago tramitatuko ditu. Geroago, ikasturtean zehar etortzen diren ikasleentzako eskaerak besterik ez dira tramitatuko.

7. Akatsak zuzentzeko Hezkuntza Ikuskaritzak itzul ditzakeen proposamenen kasuan, 10 eguneko epe bat izango da, eskatutako zuzenketak egiteko edo behar den dokumentazioa osatzeko.

8. Gela egonkorretan eskolatuta dauden ikasleen kasuan, gela egonkorreko curriculum-proiektua tramitatu behar da. Proiektu horrek 2 urte iraungo du eta Hezkuntza Ikuskaritzak eman behar dio oniritzia. Ez dira NCEren banakako proposamenak egin beharko.

9. Sinadura guztiak eta ikastetxearen zigilua sartzten dituen orria aplikaziora igo behar da. NCE batek arlo bat baino gehiago sartzten badu, derrigorrean izenpetu behar da guztietan.

2.2. TRAMITATZEKO EGUTEGIA

Ondorengo egutegiaren arabera jokatu da NCEak tramitatzeko prozesuan, norbanako curriculum-egokitzapen esanguratsuak, gaitasun intelektual handietako



Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako zabaltzeko curriculum-egokitzapenak eta gela egonkorretako curriculum-proiektua aurkezteko epeei buruz Hezkuntza sailburuordearen ebazpenak, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan 2017-2018ko ikasturtea antolatzeari buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

- Irailaren 29a baino lehenago tramitatuko du norbanako curriculum-egokitzapen esanguratsuaren proposamena ikastetxeko zuzendaritzak.
- Berritzeguneko hezkuntza-premia berezietako aholkularitzak urriaren 20a baino lehenago emango du txostena.
- Hezkuntza Ikuskaritzak azaroaren 10a baino lehenago bidaliko du oniritzia.
- Curriculum-egokitzapena eta PCAE baimentzeari edo ez baimentzeari buruzko erabakia jakinaraziko die, azaroaren 20a baino lehenago, Hezkuntza Berriztatzeko lurralde arduradunak ikastetxeei.
- Ikaslearen legezko arduraduneri idatzizko txostena bidaliko die, azaroaren 27a baino lehenago, ikastetxeak, ebazpenaren kopiarekin batera.

2.3. IKUSKARITZAK EGIN BEHARREKO TRAMITATZEKO FASEA:

2.3.1.-2017-2018ko ikasturterako NCEren proposamenak tramitatzeko orduan kontuan hartu beharreko prozedura-alderdiak.

1. Eskaera guztiak eta arauzko dokumentazioa hezkuntza-premia berezien aplikazioaren (W679 bidez tramitatuko dira derrigorrean.

2.- NCEren eskaerak kudeatzen diren aplikazio informatikoak hiru aukera hartzen ditu kontuan Ikuskaritzaren faserako eta, kasu bakoitzean, ondorengo jarduerak gin behar dira:

- a) Ikuskaritzaren oniritzia: talde multiprofesionalak proposamenaren aldeko txostena ematen badu eta txosten horrek Ikuskaritzaren oniritzia badu, Pedagogi Berrikuntza Zerbitzuko lurralde arduradunak jakinaraziko die ikastetxeei.
- b) Proposamena, berrikusteko eta zuzendu beharreko alderdiak zuzentzeko, itzultzea. Aurreko fase batera itzultzen da, aldatu edo zuzendu behar diren alderdiak zeintzuk diren adieraztearekin batera. Kasu horretan, hezkuntza-premia berezietako aholkulariari bidaliko zaio berriz NCE.
- c) Oniritzirik ez. Araudiaren kontrako alderdiak identifikatzen dira eta, horregatik, Ikuskaritzak oniritzirik eman gabe aurreko egoerara itzultzen da proposamena. Proposamen hori motibatu beharko da eta, motibazioan akatsak ikusten badira, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzan errekurritu ahal izango da edo ikastetxeak izango du erreklamatzeko aukera.

3. Akatsak zuzentzeko Hezkuntza Ikuskaritzak itzul ditzakeen proposamenen kasuan, 10 eguneko epe bat izango da, eskatutako zuzenketak egiteko edo behar den dokumentazioa osatzeko.

4.- Hezkuntza Ikuskaritzak NCEri emandako oniritzia edo iritzi negatiboa W67 aplikazioan markatu ondoren, onartu diren eta onartu ez diren NCEak zeintzuk diren jakinaraziko die Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak ikastetxeei.



5. Ikaslearen espediente akademikoan gainditutakoen gisa agertzen diren arlo /irakasgaietan ez direla norbanako curriculum-egokitzapenak proposatu behar ikastetxeari gogorarazi behar zaion arren, kasu guztietan arlo edo irakasgai batean NCErako erreferente gisa proposatzen den curriculum-maila ikasleak gainditu gabe duela egiaztatuko da aurreko ikasturteen aktetan edo espediente akademikoan.

6. Ikasle berrien kasuetan izan ezik, 2017-2018ko ikasturtearen antolaketari buruzko Hezkuntza sailburuordearen ebazpenek ezarritako epea pasa ondoren ez dira W67an sartutako eskaerak onartuko.

7. Hezkuntza Ikuskaritzak oniritzirik ematen ez dien NCEren proposamenak administrazio-errekurtso gisa tramitatu beharko zaizkio lurralde ordezkariari eta, horregatik, ezin izango dira W67 aplikazioaren bidez berriz tramitatu.

2.3.2 NCEak itzuliko diren edo ezezkoa emango zaien egoerak

Argibide hauen 1. puntuan adierazitakoa kontuan hartuta, ondorengo egoeretan itzuliko dira NCEak:

a) NCEak, globalak eta arlo mailakoak, ondorengo egoeretan itzuliko dira, berrikusteko:

- Familiak proposamena ezagutzen duela (1998/07/24ko aginduaren 11.1. artikulua), legezko tutoreen sinaduraren edo sinesteko moduko beste egiaztapen baten bidez, egiaztatzerik ez badago.
- Iraupena espresuki zehazten ez bada (1998/07/24ko aginduaren 4.1. eta 4.2. artikulua).
- Eskatutako eranskin edo datu guztiak sartzen ez badira (1998/07/24ko aginduaren 10. artikulua).
- Agiri bakarrean aurkezten ez bada.
- Behar izanez gero, hiru hizkuntzetarako (euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntza) bereizitako curriculumak zehazten ez badira.
- Ikasturte bat baino gehiagoko proposamenen kasuan ikasturte bakoitzaren bukaerarako ebaluazio-irizpideak bereizten ez badira, derrigorrezko ebaluazioaren eta geroago aktetan egin beharreko zuzenketaren ondorioetarako.

b) – Arlo mailako NCEak ondorengo kasuetan itzuliko dira, berrikusteko:

- DBHko 4.erako proposamenak, ebaluazio-irizpideetan, NCE hori gainditzeak etaparen oinarritzko gaitasunak eta helburuak eta, beraz, titulua oro har ezarritako baldintzetan (curriculum-dekretuak eta ebaluazio-aginduak) lortzeko aukera emango duen espresuki azaltzen ez badu.
- Curriculum-egokitzapenak lehenengo aldiz, ohiko neurriak, errepikatzea barne, agortu gabe, proposatzen badira eta proposamenak behar den motibazio idatzia sartzen ez badu.



Kasu horretan, hezkuntza-premia berezietako aholkularitzei edo ikastetxeari bidali beharko zaie, NCEren premia espresuki motiba dezaten. Ildo horretan, ondorengo alderdiak hartu behar dira kontuan:

- NCE esanguratsuaren proposamenak curriculumaren elementu esanguratsuei uko egin behar izatea dakarrela,
- Baita curriculum-ahalmenak ahalik eta gehien garatzeko ikasle guztien eskubidea bermatu behar dela ere.

Motibazioa aurkeztu ezean, ezetz esango zaio NCEren proposamenari.

- Curriculum-proposamenaren euskarriak 1. ardatzean (diagnostikoa) argibide hauetan ezartzen diren terminoetan adierazten ez badira.

c) Ondorengo kasuetan ez zaie NCEei baietzik esango:

- NCE proposatzen den arloa ikaslearen espedientearen gaindituta dagoela agertzen bada.
- Arlo mailako NCE batek ez badu ikaslea matrikulatuta dagoena baino bi ikasturte lehenagoko, gutxienez, curriculum-erreferentea.
- DBHn proposatzen den NCE globalaren curriculum-erreferentea aurreko etapan kokatzen ez bada.
- NCE berrikusteko itzultzen bada eta itzultzea eragin zuen zirkunstantzia epean zuzentzen ez bada.

Gasteizen, 2017ko urriaren 9an

Lucía Torrealday Barrueco
Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria

Jose Ángel Ayucar Senosiain
Hezkuntza ikuskari nagusia